

---

---

BIZKAITIK

---

---



---

---

A. ONAINDIA

---

---

## **Gaurko gazteak Bizkaian**

—Gazteak urduri bizi oi dira beti ta nunai. Zer iritzi dezu zuk oneri buruz?

—Ni ikasle nintzala, au da, Errepublikan etorri zitzaigunean, ba-zan gaur lako zer bait. Aurretik kate hogor samarrez lotuak giñan, baiña orduan, erriak, demokratzi us-tezko auteskundeak ospatu ondoren, garai irten zuen. Ba-zan, jakiña!, aldaketa ori zala-ta, iskanbilibik naiko! Zaarrak etziran lo egon, baiña gazteak ernaiago zeuden oraindik eta kementsu lan egin zuten, bai idazle bezela eta bai politika arloko auzian. Orduan etzan alere zaarren oitura ta biderik utzi, zarkituak zeudela-ta; kateak eten eta utsetik asterik etzan orduan izan: alkarri zor diogun begirunea etzan egundo ere ausi ta bazter utzi. Zaarta gazte, guztiok egin oi genduan

ore berdiña: zaurituta, makal, aul zegoen erria arnas-berritu ta jasotzen, nolako leia bizia erakutsi genduan toki ta ordu guztietan!

—Orain ez al dezu olakorik ikusten?

—Leen, urte batzuk dirala, egin ziran olako pekatuak. Baiña orain, nere iritzi, zentzatuaz doa gazteria. Geuk dagigu istoria; ortarako egungoaren erditik, gaur-unetik, joanari ta etorkizunari beatu bear zaio adiadi: lenari, gure asabak orrelako zertzeladetan nola jokatu zuten jakiteko, ta geroari, itxaropen-argiz bizturik, lanari lotu ta aurrera jokatu dezagun. Orrek ezartzen digu arnasa. Orain amar-amabi urte gazteak etzuten nai ezer zaar itxura zutenakin. Utikan! Zaarrak du, alere, argia ta gazteak kemenen: argiz ta kemenez oianean,

naiz-ta tringua izan, errezago bidea irikitzen. Zori onez gazteak —zaararak premiñarik ez ote?— Bizkaian eta Euskalerrian, zentzunera biur-tuz doaz, geienak beiñik-bein.

—Kultura barrutian, nola ikusten dezu gazteria?

—Egundokorik geien ikasten da gaur; Bizkaiko eskola-ikastola ta Bilbao'ko Ikastetxe nagusietan erakutsi ta ikasten dana, ez dago zetan aipaturik. Noizik bein kexaz dabiltz ikasleak —Deustu aldekoak diñot— ikassaillean koxkak jarri nairik dabilzanen aurka: ba-dira ikastaro bitartean, gazteak politika auzian naasi gurarik dabilzanak, Ikastetxe oietara lenengoz doaztenai buru-garriketa galantak egiñaz sarri: mingain txarrak orrela diote. Ikastaroa, ordea, naiz-ta bere garaian ona izan, ez da politikarako, gure erria nolako politikaz jaurri, kulturatu, eskolatu ta obetu bear dugun ikasi ta jakin dezagun baik. Bakoitzari berea, ta bere orduan. Ikasi ezik, nola jakin? Ikasle ona ez danak, onik zer erakutsiko? Gaur, zori onez, abagune aukerakoa dute gure gazteak ikasteko. Eta ikasi bearra dago. Au ere aitortu bear, guraso askoren illeta da-ta: neke ta izerdi guztiak emateko gertu daude bizkaitar gurasoak, seme-alabak eskolaz ta kulturaz jabetu ditezen; gazteen aldetik, ordea, zentzunik ezpada arrisku ikaragarria dago gurasoak lan ne-

ketsu ta jarraikoz irabazitako txanponak alperrik txautu ta aien bizkar par-egiteko. Lotsagarri litzateke, bizardun gazteentzat batez ere. Kulturatu bitez, gero erria, euskal erria kulturatzeko!

—Jai ta igandeetan gazte asko dijoaz mendira ta ondartzara... nola ikusten duzu ori?

—Ondo! Urte batzuk dirala, iritzi-batze bat egin zuten Bilbao'n, ots: zein dan ohea mendia ala ondartzara. Biak dituzu eder osasunerako. Gaur ba-da lanik Euskalerrian, batzuk lantegi, denda, tailler eta ofizinetan, eta beste batzuk ikasten eta erakusten. Bai auek eta bai aiek lasaialdiak bear dituzte, jarraikoa lanak berebiziko nekea ekarri da-roa-ta. Mendiko eguzkia ta aizea bikaiñak dira; baita itxasoko kresala, yodo ta abar ere, ederrak dira osasuna zaintzeko. Bakoitzak daki zein zaion ederren, itxas-ondoa ala mendi-gaillurra. Biak dituzu eder, baiña iritzi-batze artatik atera zanez, mendigoizaleak era geiago du bere soin-gorputzari sendabide ohea ar-azteko. Ur-ertzetako bustialdi ta egotaldiak egokiak izan arren, askoz ederragoak dira mendirik mendi egiñiko txango osasuntsuak. Euskaldunontzat, gailerra, egoki ta eder zaigu geure lurraldeko txoko ta ezkutu zoragarriak ezagutu ta maitatzea. Kultura bide bat dugu mendiz ta bazterrez ibiltea.

—Eta beste oetaz zer? Itxasora ez mendira joan gabe, goiz eta arratsalde bar eta ardangela illunetan, atsitueta, edan ta erre daudentaz?

—Aski zoritxar dute, gaizoaki Neurritz edo zer on, baita edariak ere. Baiña Bizkaian edan oi dan beste... Pena ikaragarria ematen dit neri gazte talde etengabea, txiñurri-erreskadea lez, bar batetik bestera, alkarren leian ikusteak. Gaztedi orrek ez du goragorako ametsik; sabela ta urdailla beste jakinorik ez duen gaztea da zaarkotua. Gazteak, lengoan —aguztuaren 22'an— P. Lartzabal'ek Maule'n esaten zigunez, pottoka izan bear du, pottoka dantzaria, motxala, txikoa. Nolako jasa duten Belatxikian edo Gorbea'n dabilzanak! Txikoa nekez ustelduko da gibeletik. Gaitza laster zabaldu oi da. Edatea ona izanik ere, txit kaltegarri da gaztearentzat. Asko ere asko ditugu, tamalez, taberna ta whisky-tokietan galdurik, zeinbat gurasok izerdi patsetan irabazitako lauzurikoak ondatzen. Or agintariak berak jarritako amu-bazka, xixari, garnata. Erlijioa ez da, ez, gaztearentzat lo-belar, opio, toki lilluragarri oiek baik.

—Eta errietako jaiak?

—Ez ditut gaizki ikusten. Gazteak bear dituzte, ain zuzen ere, jolastoki lizun, atsitu ta medar oie-

tan lamondu ez ditezen, jaiak eta lasaileku zentzunezkoak. Txaloga- rri dira askotxo, ortan saiatzen diralako. Jolas-zale da gure erria. Bizkaian, bereziki, zenbat erri-jai, zenbat ermita-jai uda ta negu! Gazte talde batzuk ez ba'ditugu oietan, jaiari dagokiona emateko, utsaren urrengo lirake noski. Edo-ta beste zerbait: or inguruko taberneruren batek —oso fiñak dira orretan gure baserritarrak— artu oi du bere pentzutari jaiaren ardu- rea: olakoaren ardurea ez da berterik, aalkol edaria upelka salduz sosez ziskua bete ta jaien lepotik irri egin. Lotsagarri au erel Jaiak erri edo auzune osoarentzat dira, ez gorputzari kalte egiñaz ezkurra eskuratzeko bakarrik. Edari-saltzailleak edu onetan eratzten dituzte jaiak: mezea alik eta goizen, jendea bildu dedin; bitarte luzea gero aur-jolas eta olakoekin orduak berterik; azkenez, bola-joku edo aaritopeka bat, arri-jasotze, dantzariak saioaren bat iñoizka, bertsolaririk nozik-bein... Iru ta erdiak inguruan bazkaria. Illuntzean eta ga-bean, orduan luzatzen da gauzea. Nere bizitzan —ez da arrokeria— Bizkaiko ermitarik geienetan izlari egona naiz eta ba-dakit zer diñodan. Jaiok ez lirake izan bear ortarako bakarrik; auzuneko zaindaria-ri berea ta euskal oitura onai ere zor dieguna emateko baiño.

—Ba-dira beste festa batzuk,

gazteak, kanta-soiñu-dantza, eraturiko jaialdiak. Zer diozu oietaz?

—Ez ditut begi gaiztoz ikusten. Euskalduna, ondo dakigunez, beti izan da musika ta irra-zalea. Zer biok gure kultura osatzen dutenak dira, ezpairik gabe. Gure bertsoak, zein bat-batez esanak zein astirotsu idatziak denak ditugu geure nortasunaren ezaugarri; bertsoak, gaiñera, asko beintzat kantatzeko eta dantzatzeko egiñak dira. Onako folklore jaiak —denak ez diote berdin— eder datozkio gure erriari, euskal jendeari: guri ez digute ezer esan oi flamenku eta olako dantza-motak, baiña geure doiñu ezti, kanta zar ta berri, ta euskal artazi zangarrak bai, barrena irauli egiten digute. Nolako txaloak! Gogora Uztaritze'ko gau-jaialdia joandako agustuaren 21'an. Urruti egonik ere, zenbat gazte aratu zan Bizkaitik eta Gipuzkoatik! Or bada zerbait euskal jendea zorakortzen duena.

—Beste talde aundi xamar bat politikan sarturik bizi da, Bizkai alde onetan ere. Zer derizkiozu?

—Ederki! Erria bere onera zuzentzea da politika. Karrera bat bezela ikusten dut nik. Erria, gure erria bere gaitasun eta gauza eder guztiakin aurrera eramanez izate, eta ortan alegiñak alegin saiatzea, ezin dezakegu iñolaz ere saiets utzi. Ortan sarturik buru-belarri lan dagitenak, ene iritzi, bide artez

zintzotik, doaztenak ditugu. Txalogarri bezin ikasgarri. Gaur ala ere ezta bat ere arritzekoa, berrogei urtetan ostikope latzean iraun ondoren, askatasun argi pizkat ikustean, danok andik eta emendik burua jaso nai izatea: olan dagite zelako lorak ere ekaitz ostean. Euskaldunok ez gara, baiña, atzera gertatzekoak eta onakoetan buru aibat aburu izan oi ditugu, leen eta orain. Gaur gertatzen zaiguna: batkotzak bere burua gaillendu nai. Ez zer txarra, baiña guztiok batera ezin erakutsi. Eta or koxka: nork lendabizi ta nork azken? Zenbat alderdi politiku erne zitzaizkigun Euskalerrian, leen ezagutzen etziranak ere! Erlauntz durundutsua dirudi. Ezta arritzekoa, diñot berriz ere; baiña zentzun apurrez jokatu bear. Alderdi guztietatik, nere uste apalez, Euskalerrian beintzat, onek irabaziko du: Euskalerrian maite izanik, bertoko lege, oitura —euskal demokrasi berezia— izkuntza, erriketa, sendi, kultura, erlijio ta euskal gogoa, arnasa, nortasuna osatzen duten zer guztia-kin, gure erria aldeztu ta legeztu zentzunez goratzen dutenak. Gaurko naste onetan, egia, batzuk Euskalerrira begira daude, beste batzuk gure erri gaiñ txirrist egiñik urrutirago dute beren soaren aparta edo jo-muga: askori itzez ta idatziz gauza eder asko adierazi arren,

laster igarten zaie nundikan duten erren-makurra. Ez da naikoa ormetan esan ederrak jartzea, ezta batzar zaratatsuak egitea ere. Euskalerrian alde jokatu bear da emen, eta dana jokatu ere; beste guztia gure lurraren bizkar jokatzea litzateke. Euskaldunok oraindik ere esan-idatzi bitxiak irunsteko al gagoz?

—Izkuntzari buruz, nola ikusten dituzu Bizkaiko gazteak?

—Gazteen eskuetan dago euskerraren zoria; ez izan durarik. Bizilegea danez, zaarrak ba-dijoaz, eta, aize bizkorra iduri, abiada izugarrian joan ere. Oraingo gazteak esnatu ta euskera alde al dutena ta geiago ezpa-dagite, gure izkuntza ilko zaigu, Naparru goialdean oraintsu eta Bizkai'ko erri askotan il dan bezela. Bein il ezkerro, naimen sendoa bear da ildako izkuntza bat berriz suspertzeko, illari arnas berrira sartzeko. Ala Kristok Lazaro'rekin bezela egingo ote dute gure ondorengoak? Beren izkuntza galdu zuten aberri batzuk, izkuntza illa berriz ere piztazi egin dute, egia; baiña beste askok bein galdu-takoa ez dute geiago piztu al izan, egiñak egin arren. Zertan gara? Zaltetan aundia sortu da bazterretan, euskera ikasi ta bere aldeztu jokatze; alere geiago bear da oraindik. Ikastoletan asko ari dira ikasten? Eta ari ez diranak, euskaldunak izanda ere, ez al ditugu

askozaz geiago? Lengoan neuk ikusia auzuneko jai baten: aur-jolasetan zebiltzan umeak eta nagusiak, zintzilika jarritako sagarrak nork ariñago jan, nork gorago saltu egin, txokolatea nork lenengo artu ta olakoak; antolatzaileak, euskeraz zekiten umetxoai erderaz egiten zieten. Lotsagarria! Kulturarik eza! Geure-geureak ditugun gauzetan orrela jokatzen baldin ba'dugu, asmo onarekin ote dabil-tza jolasketa oien zuzenlariak? Ez-paia sortzen...

—Eta erlijioa? Gaur ez ote dugu esaten gaztedia paganotu egin zaigula?

—Esaten dira bai olakoak eta geiago; neri, alere, lartxo esatea dala deritzait. Mundu guztian dabilta gazteak —zaarrak ez?— aski kilokolo. Aldien ikurra omen da. Gaurko gazteak, egia esateko, ez dute geiegi ikasi barne-balioetaz; azalari —aragiari, diruari, aundi-izateari, edariari— atxikiak bizi dira geienak. Labur: mundu gaikor edo materialista onetako zalekeriz liluraturik. Laster, orraitio, asetu oi dira oietaz ere, ta or dabilta ondoren «ez gaude konforme» kantatzen. Gure garaian etzan olakorik: guk aurrera jo nai izan genduan beti. Zuek ere, gazteok, ez ito basalikitoan; jo aintziña egada azkarrrez oien gaiñetik. Ludia berriztu bear dugu. Berriztuko ote zuek

## BIZKAITIK

ezik? Loltegian aztalka, baiña, nola ezer berriztatu? Gora blotz-begiak! Asko, egia, ezker-eskui ditugunak gisa ortan dabilzala ta besterik gabe, berak ere bide ortatik jo oi dute nundik doazten ez dakitela. Gaixoak! Etzaitzte egundo ere moltzoko izan, itsumustuan ari naiz oni jarraitzeko gertu zaudenatarikoak. Askok zer-esanagatik utzi dute eliza; alan eta guzti ere, fedegabeak dirala esan ezker, bertatik erantzungo dizute ezetz biribilla emanez eurak siñistuten dutela. Orduan zer dala-ta ez duzu betetzen bataioak eskatzen dizuna? Nun utzi duzu gizon bezela osatzen zaitun barne-nortasuna? Nekez-nekeza egiazki euskaldunak berezkoa duen soiñekoa eraztea: urteetan aleginduta ere, ezingo da beste batekin estaldu. Euskaldunaren fedea ez da ain aldakor, itxitasunak noraiño eraman gaitekean ez dakigun arren. Itxikeri barik, jo dezagun danok alkar zerbitzura, ez Marx'ek edo Lenin'ek erakutsi zutenez —mingaiñez sarri—, Kristok erakutsi zigunez baizik. Gogora azken-apariko oin-garbiketa...

—Langille maillan, ona al da gaurko gaztea?

—Bai zera! Alper izena du; izana, ordea, ez dakit nolakoa, itxurak maiz, eta izenak ere bai, ziria sartzen. Bertoko gazteetatik neskak gelago dira mutillak baiño denda, tailler, biltoki ta olakoetan lan da-

gitenak. Mutillak gurago dute mekanika ta tximist-indar arazoetan aritu. Pozarren lan dagite ortan. Arrotzak, ordea, berdintsu; al duten lekuan, lana izan ezker, pozik daude; lan eskean datoz, eta zeri ekin dutenean, aritxeri lotuak. Baserrietan, ez dute lanik egin nai, ez mutillak ez neskak. Gogalkarri zaie. Ortik datorkie gero «alper» izen ori. Izan ere, zortzi ordu lan-tegi batean bearrari ekin dionak ez du gogo bizirik izango berriz ere soroko lanari oratzeko. Beraz, gure gazteai ezin, langille bezela, nota bikaiñegirik eman.

—Azkenik, gazte asko euskal idazle dira, orko ta ango aldizkarietan idatziaz.

—Ederki. Gu ere geure egunetan orrelaxe jardunak gara. Aintzagarri da idazle izatea, naiz-ta batzuk, aski liburu dugula-ta, aldia alperrik galtzea dala esatea gauza aunditzat euki. Errukarriak! Arrokeria beti da zazpi griñetatik bat, oso txarra, soroan aski ugariaren pareko. Gaur gazteen artean idazle onak daude, iztegi ugari ta joskera apaiñez beren lanak moldatzen dituztenak. Idatziz ikasten gaiak sakon pentsatu ta adierazten. Baita ba-dira erdizkakoak ere, oraindik bear aiña umotu ez diranetarikoak. Oraintsu oraindik batek esaten zidan: «Gaurko idazle gazteak —berak uste dute gazteak dirala— ez

## BIZKAITIK

dute lotsaren izpirik ere». —«Zergatik, baiña?» — «Ez al dakizu zer dakarren «Analtasunak»? - «Ez, ba...». Eta au irakurri zidan: «Jose Antonio Agirre Saria hiru urtetik behin ematen da. Aurtengoa Jaime Kerexeta apez jaunaren I eta II mendeko Eliz gurasoen idazkiak izeneko liburuari eman zaio. Sortu zenetik, J. A. Agirre Saria, hutsik egin gabe, idazle erlijioso edo eta gai erlijiosoan idazleei eman zaie beti. Gabriel Aresti defuntuak zionez, «ez da harritzeko, horren bidez Gobierno de Euzkadi-koek euskal kleroiari beren diru kontribuzioa ordaindu nahiko diote eta». (Eman bota zizkidan botatekoak!). Eta aurrera jarraitu zuen, irakurriaz: «Zahar izatea eta zaharkiturik egotea gauza bat da, baina 1976.ean I eta II mendetako obra batzuren itzulpena egungo euskal literaturaren eredutzat ipini nahi izatea besterik da: psykiatra on baten falta». Emen beste dozena bat birao! Azkenik, ni paketu gurarik nenbilkiola, au bota dizan: «Bai, gauza auok idatzi dituztenak psykiatra on baten premiñan dagoz!». Or, ba, jakin ez nork daukan errazoia. Dana dala, gauza bat

dakigu: gazteak, edo gazte antzeko batzuk, oso ausartak dirala, giza-legerik ikasi ez dutenak, edo-ta ikasi arren, bete nai ez ditutenak. Alarre, legeok zuzen eta egokiak dira alkar ondo aitzeko. Ala ez al dugu opa alkar aitzerik? Orduan, goazen oianera...

—Zure ustez, zaartuak al dira lenengo mende aietako idazkiok?

—Kierkegaard'ek esan oi zuen: «Ez da berdin «emen erropa garbitzen da» orman jartea eta egiazki erropa garbitzea. Iragarkirik ez dugu bear, lan egitea baiño. Orrek dakarkigu frutua. Idazki aiek zaararak omen? Gure «Orixe»-k —esanak esan beti aundi—, **San Augustiñen Aitorkizunak** itzuli zuen, itzulpen bikaiña, bera omen dugu utzi zizkigun itzulpenetatik bikaiñena, euskera jator-jatorrean. Berak ba-zekien ori, ta orrela esaten zidan ikustera joan nintzakion baten: «eliz-gizonak ba-dute emen zer ikasi; eurentzat egiña dut ala naiz. Zaarkitua au ere? Bai zera! Irakurri nai ez duenarentzat bear bada. Pitxiak beti pitxi, baiña ez edozeñentzat lortugarri.

A. O.